

2. FITXA : DENAK GARA BERDINAK

HELBURUAK :

Desberdinak garen arren, hainbat arlotan franko antzekoak garela ikusi.

Gure antzekotasunak azertu.

Gugandik franko desberdinak direnek ere gurekin dituzten antzekotasunak aurkitu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.
- Jende taldeen ezagutza sustatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Zertan gara bertzeak bezalakoak ?

Nor dira gugandik franko desberdinak ?

Talde ttipitan aldizkarietatik hartu “arraza” desberdinetako pertsonen irudiak azertu.

Gugandik franko desberdinak badira ere, zertan zaizkigu berdintsu ?

Kanpo ezaugarriez gain, gurekin dituzketen antzekotasunak bilatuko ditugu :

gu bezala etxe batean biziko dira, maite duten pertsoez inguratuak, egunero jateko zerbeit ukanen dute, eskolara joanen dira...

Talde ttipitan aztertuko dute gai hau eta ondotik, talde handian antzekotasunen zerrenda eginen dute.

Bigarren ariketa honen bidez, denak desberdinak izan arren, denak franko antzekoak garela ikusiko dugu. Denak hain berdintsuak bagara, zergatik bazterzen ditugu gure antzekoak direnak ? Eta horrela egiten badugu, ez ote zaigu guri ere berdin gertatzen ahal ?